

## **Autonomia**

Autonomia askatasuna da Kanten aburuz. Faktikoki autonomo edo askeak izango gara lege a priorien menpe baldin bagaude, eta legea nork bere buruari emateko gaitasuna da autonomia, hots, gu geu izatea gure ekintzaren oinarri eta kausa.

Moralitateak zentzua du baldin eta posible bada gizakiari buruz hitz egitea natura hutsa ez den heinean, hots, determinatuta ez dagoen heinean. Beraz, kausa-efektu segidatik at kokatzen bagara existitzen da moralitatea. Ekintza moralaren kausa ez da izango beste fenomeno bat, beste kausalitate mota bat proposatzen du: borondate transzendentala, hau da, naturatik at dagoen askatasuna.

Noumenoa, hau da, kausarik gabeko kausa, bat-batekoa eta aurrekaririk gabea, autonomia da. Mundu adigarriak mundu sentikorra dakar, mundu adigarririk gabe, hau da, kausarik gabeko kausarik gabe, ez dago mundu sentikorrik. Gizakiaren izaera fenomenikoa partziala da, eta izate baldintza bezala du gizakiaren izaera arrazionala.

Autonomiaren oinarrian borondate huts hutsezina dago eta, horrela, moralagatik determinatuta jokatzera beharrezkoa da, hau da, nork bere buruari legea edo araua ematea beharrezkoa da.

## **Betebeharra**

Betebeharra printzipio bat-bateko baten bitartez gure ekintza determinatzeko errespetua da. Gizakiok betebeharra dugu inperatibo kategorikoaren legea betetzeko, eta lege honekiko errespetuak bultzatuko du ekintza baten beharrezkotasuna. Ekintza bat beharrezkoa da baldin eta errespetua sentitzen badugu lege praktikoarekiko.

Borondate onaren printzipioa eta motibazioa da betebeharra eta, hain zuzen, borondate on baten ontasuna motibazioan datza, ez bere arrakasta faktikoan; hau da, ekintza bat ez da ona edo txarra ekintzaren helburu edo ondorioei erreparatuz, baizik motibazioari, ekintza eragiten duenari, erreparatuz. Beraz, betebeharrak kausatzen du legearekiko errespetua eta ekintzaren ontasuna.

## **Borondatea**

Borondatea onak izateko gaitasuna edo potentzialtasuna da, kanpo hertsaduratik aske ekiteko printzipioa nork bere buruari legea emateko gaitasuna izanez. Borondatea bi eratarata determinatu daiteke, izan ere, ekintzak zio desberdinengatik egiten ditugu.

Batetik, aiharren edo desiraren bidez, arrazoi instrumentala erabiliz. Guk naturalki bilatzen dugu desirak asetzera eta minak saihestera. Horrela, lege naturalei jarraituz eta, hartara, heteronomoki, zorientasuna den ongi erdietsi dezakegu aiharren asebetetzearen bidez. Gu natura gara, eta ezin diogu uko egin, naturan kokatzen diren izaki guztiek hau kokatzen dute. Mundu fenomenikoan bilatzen dugun oro baldintzatuta dago, bertan ez daude berezko helburuak baizik eta erlatiboak; enpirikotasunak baldintzatzen edo determinatzen gaitu. Absolutuki ona izateko edo moralitateaz hitz egiteko ekintza edo nahimena ezin da baldintzatua egon, autonomoa izan behar da. Beraz, fenomeno naturalek kausatutako egoeren pean ezingo genuke moralitateaz hitz egin eta, horrela, borondatea heteronomoki determinatzean borondate txarrean aktualizatzen da.

Bestetik, posible da beste era batean jokatzera, hain zuzen, betebeharraren bidez. Horrela, arrazoimen hutsak bere buruari ematen dio legea era autonomoan jokatuz. Borondateak bere buruari legea ematean, hots, borondatea autonomoki determinatzean, borondate ona den ongi erdietsi dezakegu (potentzialtasuna aktualizatuta). Borondate ona gizaki onaren motibazioa da, hau da, ontasuna motibazioan datza ez eragindakoa, eta motibazioa legearekiko betebeharra da. Berezko helburua, ongi absolutu mugagabea, ez dago lege naturalengandik baldintzatua eta, beraz, autonomoki determinatuta lor dezakegu.

Beraz, borondate ona zorientasunaren gaintik gailentzen da, izan ere, zorientasuna ez dugu bilatzen guk hautatzen dugulako, aiharren arabera da, gizakiok horretara baldintzatuta gaude. Borondate ona helbururik garrantzitsuena da, ona baita mugagabeki eta nork bere buruari legea ematean, autonomoki determinatuta egotean, lortzen da.